

GURE MISICAN ZAUPDE

ESKERRIK ASKO EDUKIONTZI
MARROIAN BIRZIKLATZEAGATIK



Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



ESKERRIK ASKO ORGANIKOA BIRZIKLATZEAGATIK

Leioako Udalak eskerrak eman nahi dizkizue zuen laguntzagatik, gure inguruaz eta ingurumenaz zaintzeko dugun misioaren parte izateagatik.

Etxean sortutako **hondakin begetalak** birziklatzeko (gordinak edo kozinatua) **bosgarren edukiontzia** edo edukiontzi marroia erabiltzen egiten duzuen eguneroko lanak ingurumenaren aldeko heroi bilakatzen zaituzte.

Lan honekin jarraitzeko eskatzen dizuegu, **jatorri begetala duen materia organikoa** birziklatzen edukiontzi marroian. Zuen laguntzari esker, Leioa ingurumenarekin konprometituta dagoen udalerrria da.


HELBURUA

Gaur egun, gure zakar poltsaren %40 materia organikoz osatuta dago, batez ere, janari hondakinak. Leioaztarrok, orain arte, 313.640 kg* materia organiko sortu dugu, eta gaika bilduta, bere zikloarekin jarraitzen du aurrera, konposta egiten duen tratamendu-instalazio batean.

Gaur egun, udalerriko **1.262 etxebizitza** inskribatu zarete hondakin begetalen gaikako bilketa zerbitzuan. Horrek esan nahi du, lehen urtean, Leioako **etxeen %10** ari direla birziklatzen honezkero.

Helburua da, gutxienez, etxebizitzaren %30ek bereiztea materia organikoa.

* ZERBITZUA ABIAN KARRI DENETIK (2015eko MAIATZA - 2016ko ABUZTUA).



INGURUMENAREN ALDEKO 3.000 HEROI BAINO GEHIAGO ZARETE, HONEZKERO, LEIOAN.

HONDAKIN IZATETIK BALIABIDE IZATERA

Konposta oso baliabide baliotsua da, erabilera asko dituena: lorezaintzan eta nekazaritzan erabiltzen da ongari edo zorurako medeapen bezala, baita paisajismo eta obra zibilean ere.

Sistema honi esker, **Leioa jasangarriagoa** da eta ingurumena hobetzen laguntzen dugu.

ABANTAILAK

Azken batean, **gure sukaldeko hondakin begetalekin konpostea sortzea onuragarria da ingurumenerako, eta gainera, dirua aurrezten da.**


Adibidez, zerbitzua abian jarri denetik, konpostaje-instalaziora bidali dugunarekin, orain arte, **ia 12.000 euro* aurreztu dugu Leioan.**

Etxean egiten duzuen lanarekin lortu duzue Leioak dirua aurreztea, komunitatearen aldeko beste xede batzuetan erabil daitekeen dirua.

* ZERBITZUA ABIAN KARRI DENETIK
(2015eko MAIATZA - 2016ko ABUZTUA).

LEIOAK GEHIAGO BIRZIKLATZEN DU

*Zuen ahaleginari
esker komunitatearen
aldeko beste xede
batzuetarako diru
gehiago erabil
daiteke*



POLTSAK DOAN

Lan garrantzitsu honekin jarraitu ahal izateko, erabiltzailea den etxe bakoitzean **150 poltsa biodegradagarri** gehiago emango zaizkio **doan**, urte osoan zehar birziklatzeko nahikoak.



KITA HARTZEKO LIEKUA

Poltsa biodegradagarriak (50na poltsako 3 biribilki) jasotzeko, Leioako Bulego Teknikora joatearekin nahikoa da:

INFORMAZIO BULEGOA
Independentzia 10-behea

BIRZIKLATZIEAK SARIA DAUKA

Hondakin begetalen birziklapenarekin egiten ari zaren lanak saria dauka. Izan ere, zure ahaleginari esker, mesede egiten diozu ingurumenari, eta, gainera, aurrezki ekonomikoari laguntzen diozu. Horri esker, diru hori beste helburu batzuetara bideratzen da, leioaztar guztien onerako.

Baina, gainera, zure kolaborazioak beste sari bat ere badauka; oraingo honetan, soil-soilik zuretzat. Bosgarren edukiontzia erabiltzailea bazara, **20 euroko opari-bonua jasoko duzu** sari gisa (zaborren zergaren herena), kanpaina honekin bat egin duten **Leioako Merkatarien Elkarteko saltokietan trukatzeko.**

Eta zu, bosgarren edukiontziko birziklapenean hasi ziren lehenengoetakoa izateagatik, zure etxean jaso duzun bonu honen onuraduna zara jada. **Egiten ari zaren lana eskertzeko modua da honako hau,** bai eta ingurumenerako eta bertako ekonomiarako onura horiek udalerrirari izultzeko modua ere.



Comercios Unidos De Leioa
Leioako Merkatarien Elkartea

BILA EZAZU IKURRA, LEIOAKO MERKATARIEN ELKARTEKO SALTOKIETAN.



OPARI-BONUA

Urtero, zabor-bilketaren zerbitzuan izena emanda duten pertsonak –eta ohiko erabiltzaileak direla egiaztatu ostean– Leioako Merkatarien Elkarteko saltokietan erabili ahal izango den opari-bonua jasoko dute. **Bonua jaso ahal izateko, bosgarren edukiontzia hilean lau aldiz erabili beharko da, gutxienez.**

Horretarako, gainera, kontuan izango da edukiontzira **botatako hondakinaren kalitate ona**, hori oso garrantzitsua baita ahalik eta konpostik onena lortu ahal izateko. Izan ere, konposta Leioako lorategi eta berdeguneetan erabiliko da gero.

Orain, ingurumenarekin duzun konpromisoak saria izango du: **20 euroko opari-bonua**, Leioako Merkatarien Elkarteko saltokietan erabili ahal izango duzuna.